


EMILIO LOPEZ ADAN EUSKAL IRAULTZA LIBERTARIOAREN PENTSALARI

Pako Sudupe Elortza
UEU-UPV/EHU, 210 or.
Bilbo, 2020

Pako Sudupek Emilio Lopez Adan «Beltza» pentsalari eta ekintzailearen ekarpenak biltzen ditu liburu honetan. Liburua ez da biografia bat, inondik ere. Aitzitik Lopez Adanen bizitzaren berri gutxi ematen da, testuingurua ulertzeko beharrezkoa dena besterik ez. Suduperi Beltza pentsalaria interesatzen zaio, hasieratik dio ekintzailea bainoago teorikoa izan dela eta liburua horren froga garbia da. Beltza intelektual da, intelektual trinkoa, bere oinarriak abertzaletasunean, euskaltzaletasunean, etikan, moralean eta marxismo libertarioan dauzkana. Askorentzat, neu barne, ezkerreko eta abertzaleen erreferente garrantzitsu(en)a, baina horrez aparte, beste gauza asko ere izan da. Beltzak gai ugari eta askotarikoak jorratu ditu eta horiek guziaz ordenatu nahian Sudupek hiru ataletan banatu du liburua.



1. irudia. *Emilio Lopez Adan* argitalpenaren azala.

Lehenengo atala biolentzia politikoaren memoriei dagokie eta horretarako ardatza Beltza ETAko kide izan zen garaia da, alegia 1964-1974. Beltza Gasteizen jaio zen 1946an, Espainiako Gerra Zibila galdu zuen familia oso euskaltzale batean. Beraz, abertzaletasuna eta euskaltzaleatasuna etxeko supazterretik datorkio. 1964an Valladoliden mediku-ikasketak hasi zituen eta han korronte marxista eta anarkisten lehen ezagutza egiteko parada izan zuen. Ia garai bertsuan, Gasteizen euskal nazioaren egoeraz eta askatasun faltaz kezkatuak zeuden gazte talde batekin biltzen hasi zen eta handik gutxira ETA erakundearen sartu. Beraien ekimena, batez

ere propaganda-alorrekoa zen, kartelak jarri, afixak banatu eta abar. 1966an ETAn munta handiagoko ardurak hartu zituen eta, halaber, Medikuntza ikasketak eten behar izan zituen.

ETAn sartua dagoela erakundearen V. Asanblada izan zen eta bertan joera desberdinak izan ziren. Alde batetik *Branka* aldizkariko kideak zeuden (Jose Luis Alvarez Enparantza «Txillardegi», Benito del Valle, Xabier Imatz). Haien aburuz, Euskal Herriko arazo nazionala eta soziala txanpon bereko bi aldeak ziren eta arazo nazionalak behar zuen lehentasuna. Txillardegi batik bat sekula ez zen marxismoaren defendatzaile izan, nolabaiteko sozialismo humanista orokor bat sustatzen zuen. Baziren ere, Estatu Espainiar osoko langile-klasearen aliantzaren aldekoak, helburua kapitalismoa eta erregimen frankista botatzea eta iraultza sozialista gauzatzea zen. Euskal Herriaren nazio-izaera onartu eta, halaber, autodeterminazio-eskubidearen aldekoak baziren ere, beren estrategia estatalista zen. Azkenik, bazen ere gailendu zen taldea. Beren burua marxistatzat zeukaten eta iraultza sozialaren beharra ikusten zuten, baina horren aurretik Euskal Herriaren askapen nazionala eta sozialak lehentasuna zeukala esaten zuten. Korrante horretakoak ziren Federiko Krutwig, Julen Madariaga eta Jose Antonio Etxebarrieta, besteak beste.

Beltzaren ustez, V. Asanbladak abertzaletasunean eta marxismoan oinarrituko zen ETAREN pentsaera finkatu zuen. Ondorioz, Brankakoek eta Txillardegik berak erakunde utzi zuten, ETA marxista-leninista bilakatu zela argudiatu ondotik. Beltzak, aldiz, pozik jarraitu zuen erakundeko kide izaten.

Denboraren poderioz Belgikan erbesteratuak zeuden kideak eta barrualdean ari ziren buruzagi eta ekintzaileak urruntzen hasi ziren. Borrokaren gorian, sasia eta kartzeletan zeudenak gazteagoak ziren eta gatazkaren ondorioak oso hurbiletik bizi zituzten. Erbestean zeudenak zaharragoak izateaz aparte, urrun bizi ziren eta ez zuten Euskal Herriarekin hain kontaktu zuzenik. Egoera horrek ekarriko zuen barrualdeko buruzagiek *de facto* boterea hartzea, Madariaga, Krutwig eta enparauen kaltetan. Horren harira Krutwigek Beltzari kritika latza luzatu zion. Hegoaldeko talde exekutiboak agintea bereganatu eta atzerrian zen Biltzar Ttipiaren gainetik jarri zenean, ez zuela horren aurrean behar bezain oldarkor jokatu. Beltzak, maila baten, onartzen du kritika. Oraindik gazte eta berde, eraginkortasuna eta zalutasuna helburu zuten barnealdeko kideengan konfiantza osoa zuen eta ez zen gehiegi kezkatu. Ez zen konturatu oraindik barne-egiturak errespetatzeak zuen garrantziaz eta gerora onartuko du, akaso lausoegi jokatu zuela. Biltzarraren ondotik 1966-1968 aldian Hegoaldean mantendu zen, erakundearen barnealdeko ekintzaile modura, tarteka Iparraldean egonaldi batzuk eginez. 1968an Exekutibako kide zenbaitekin izandako desadostasunak eta presio poliziala oso hurbil sentitzearen ondorioz Ipar Euskal Herrira ihes egin zuen. Bertan zela, Kristiane Etxaluz, Andde Galant eta Iparraldeko beste zenbait pertsonaren ezagutza egin zuen. Horiekin luze eztabaidatu zuen marxismo, anarkismo eta teoria iraultzaileez. Handik gutxira, 1968ko udazkenean Bruselara joatea erabaki zuen. Bertan Medikuntza ikasketak berrartu eta bukatuko zituen. Halaber, belgikar naziotasuna eskuratuko zuen. Belgikako hiriburuan erbesteratua zegoen taldea oso plurala zen eta, giro lasaian, teoria politikoez asko eztabaidatzen zuten. Bi figura nabarmentzen ziren guzien gainetik, Federiko Krutwig

eta bestea Julen Madariaga. Biak ala biak nortasun handikoak, Krutwig ETArekin zuzendaritzatik aldenduagoa zegoen eta kritikoagoa zen, ekimen handiko gizona izanik, bere kabuz Txinak Bruselan zuen enbaxadara jo zuen ETArekin ordezkari gisa eta arazoa bideratzeko laguntza eskatu zuen. Horrek, jakina, zuzendaritzaren haserrea eragin zuen. Madariaga hasieran hurbilago sentitzen zen eta Eskubirekin, barnealdeko komandoetako buruarekin, harremanak normalizatzen saiatu bazen ere, elkarrekin ez ziren larregi fio, eta beren arteko desadostasunak agertzen hasi ziren. Horrela gauzak, testuinguru horretan izan zen ETArekin VI. Asanblada, Itsasun. Bruselako taldeko bost kidek gutun kritikoa igorri zioten zuzendaritzari. Zuzendaritzan Patxo Unzueta eta Petxo Idoyaga ziren nagusi. Bestalde, zuzendaritzaren eta barnealdeko komandoen artean ere bazen gatazka. Horien buru Eskubi zegoen eta argudiatzen zuten ETA langileen alderdia bihurtu behar zela eta iraultza sozialista aurrera eraman. Zuzendaritzakoek, aldiz, uste zuten klase herrikoiak bildu behar zirela oligarkiaren aurka. Hauek Eskubi eta enparauen estrategia estatalista kritikatu eta, Beltzaren aburuz, puztu ere egin zuten. Bruselako taldearen ordezkari bakarra Madariaga izan zen eta onartu behar izan zuen nahiko desinformaturik zeudela eta aurrez adierazitako bi korrante horien gatazkaren berri ere ez zutelana.

Asanbladaren ondorioak ez ziren berehala ezagutu. Denborarekin zuzendaritzako kideak LKI alderdira (troskistak) lerratu ziren eta Eskubiren taldekoek ETA VI. Asanblada osatu zuten. Artean Burgosko Prozesua hasi zen 1970eko abenduan. Epaitegi militar batek hainbat etakide epaituko zituen. Epaiketaren hasieran, ETA historikoak (V. Asanblada) satorrak bidali zituen presoengan eragiteko eta, horretaz gain, Behil kontsul alemana bahitu Ipar Euskal Herrian. Horrek giroa erabat nahastu zuen epaituen artean. Hasierako epaiak oso gogorrak izan ziren, zenbait heriotza-zigor barne, nahiz eta abenduaren 30ean Franco diktadoreak heriotza-zigorrak baliogabetu eta kartzela-zigorragatik ordezkatu zituen. Momentu horretan erakundeak norantz joko zuen, nola antolatuko zen, zegoen ezbaian. Horretarako funtsezkoa zen Burgosko epaituen iritzia jasotzea. Horiek hasiera batean ETA VI. Asanbladaren alde lerratu ziren eta gogor salatu zituzten zuzendaritzari gutun kritikoa igorri zioten taldekoak: J. Madariaga, J.J. Etxabe, F. Krutwig, A. Arregi eta Beltza bera. Hala ere, auziperatuen komunikatua oso kontraesankorra zen, beren burua marxista-leninistatzat aurkezten bazuten ere, batez ere abertzale gisa definitzen ziren. Denborarekin, zuzendaritzak informazio nahasia pasa ziela argudiatu zuten, eta V. Asanbladaren ildoan mantentzea erabaki zuten. Nolabait esateko, ETA historikoan.

Burgosko Prozesua amaitu ostean, Txikia, Txomin Iturbe eta J.J. Etxabe borroka armatua dinamizatzen hasi ziren berriro: azpiegiturak berreraiki, mugalari-sarea osatu eta berriro ere ekintza militarrekin hasi ziren. 1972an EGiko 500 militante eta hamaika liberatu erakundean sartu ziren. Beltza eta bere taldekoek integrazioa kezka hartu zuten, ez baizuten ulertzen bere burua marxista-leninistatzat zuen erakundeak EGIk planteatzen zuen sozialismo nahasiarekin bat egitea.

Denborarekin ETArekin fronte militarrean bi polo sortzen joango dira. Erakunde politiko-militar bateratu baten alde egiten zutenak eta bestalde fronte militar autonomoa defendatzen zutenak, fronte militarra eta iraultza soziala bereiztearen aldekoak ziren eta horien buru Txomin Iturbe eta Argala zeuden.

1973an ETAk Carrero Blanco presidentea hil zuen. Ekintza horrek mugimendu antifrankistan poztasun handia ekarriko zuen, eta horrekin batera ekintza militarren ahalmenaren goretea. Beltzarentzat arrakasta hori kaltegarria zen, jarduera armatuak hartzen baitzuen lehentasuna eta eztabaida teorikoak eta politikoak indarra galtzen zuten, antzutzat jotzen ziren. Auzi horretan aurki dezakegu Beltzaren aldentzearen arrazoi nagusia. Beltzarentzat borroka armatua ez da berez helburua; aitzitik, herriaren askatasun-nahiak asetzeko bitartekoa behar luke izan. Ondorioz, borroka armatuak etikoa eta morala izan behar du. Horrela gauzak, isilik, trauma handirik gabe, Beltzak ETA utziko du 1974an. Urte horretan bertan ETako langile-fronteko zenbait kidek aparatu militarren esku-sartzea salatu, erakundearen egitura utzi eta LAIA (Langile Abertzale Iraultzaileen Alderdia) sortu zuten. Beltza alderdi horren ingurura bildu zen, 1976an Brusela utzi eta Iparraldera (Angelura) joan zen bizitzera.

Diktadorea hil eta Trantsizioa deituriko garaia hasi zen. Ordurako ETA bitan zatitua zen: militarra (m) eta politiko-militarra (pm). 1976ko abuztuan eta trantsizio horretan kokatzeko asmoarekin KAS alternatiba aurkeztuko dute ETAp, EHAS eta LAIAk. Alternatibaren helburu estrategikoa Euskal Estatu burujabe, bateratu, sozialista eta euskalduna lortzea zen. LAIAk helburu horiek bere osotasunean bere egiten zituen, hala ere helburu taktikoei dagokienez, LAIA uzkur zen burgesiak onar zezakeen programari baiezkoa emateko. Horrekin batera iritzi bi piztuko dira alderdiaren barruan: LAIA BAI-koek esan zuten sozialismoa garatzeko baldintza objektiboak bazeudela baina subjektiboak ez, horrela joera moderatuago batera lerratuz. LAIA EZ-ekoek objektiboak eta subjektiboak zeudela esan zuten eta erradikalago jokatu zuten. Horrela gauzak, LAIA BAI-k KASen jarraitu zuen, LAIA EZ, ordea, atera egin zen eta jatorri anitzeko militante batzuekin batera LAIAK (LAIA komunista) sortu eta autonomiaren mundu zabalean, Komando Autonomo Antikapitalisten sorreran parte hartu zuten. Beltzak korrante horrekin bat egin zuen. Beraz, Beltzaren taldekoek erreforma errefusatu eta hausturaren alde egin zuten. ETAm eta inguruko ezekotik harago joan ziren, Konstituzioaren aldeko erreferendumean ez parte-hartzea erabaki zuten. Kontua ez zen Konstituzioaren testua desegokia zela, hori ere bai, baina larriena zen nortzuek bultzatu zuten konstituzio hori eta zertarako.

Liburuaren bigarren zatian, Beltzak ETAREN ekintzak etikoki eta moralki nola baloratu dituen aztertzen da. 1968an ETAk Eibarren egindako atentatu bat kontatuaz hasten da. Ekintzaileak bulegoan garbitzaile bat sartzen zela ikusirik, bera ere bulegoan sartu eta lehergailua leherraraztea deliberatu zuen. Ondorioz, zauritua eta atxilotua izan zen; garbitzailea, aldiz, salbu. Gertaera horrek argi eta garbi islatzen du garai bateko ETAREN borroka armatuak zuen oinarri etikoa. Are gehiago, Beltzak dio 1968tik 1973ra arte borroka armatua terrorismo bilaka ez zedin kontu handia izan zuela erakundeak, baina denbora pasa ahal arreta gutxitzen joan zen. Alde batetik, ETAk jada ez zuen erregimena botatzea helburu, ostera, KAS alternatiba oinarri hartuta gobernuarekin negoziatu nahi zen. Horretarako, presioa egiteko, hildakoak eragin behar ziren. Halaber, onartu behar da demokraziak ez zuela errepresioa baretu. Aitzitik, polizia eta mando frankistak egun batetik bestera demokratikoak izatera pasa ziren, baina torturak, talde paramilitarren erasoak eta abar areagotu egin ziren. Horrek ekintza-errepresioa-ekintza espiral zoroa handitu

baino ez zuen egin. Beste faktore bat kontuan hartzeko da, ETApn-renen artean bazela talde zaildu bat, sobera prestatuak zeuden kidez osatua, Bereziak izena hartzen zuten. Egiten zuten marxismoaren interpretazioaren arabera, talde gidaria ongi antolatua bada, zorrotz eta emozioak saihestuz jokatzeko badu, estatuari aurre egiteko gaitasuna eta negoziaketa behartzeko aukera izango du. Beltzak dio horiek ETAre mentalitatea aldatu zutela. Urteekin peemee armak utzi zituztenean ETAm-n integratu ziren. Bi adarretako buruzagiak nahastu ziren eta 1977tik 1992ra zuzendaritza-taldea nahiko egonkorra izan zen

Testuinguru horretan eta jazo ziren beste gertaera batzuk lagunduta (*EGIN* egunkaria ETAre ildora lerratzea adibidez), jada urte batzuk erakundea utzia zuen Beltzaren urrutzea areagotu zuen. Horrekin batera, arlo teorikoan marxismo-leninismotik marxismo libertariorako jauzia egin zuen. Hala ere, horrek ez du esan nahi erreforma ez eta indarrean dagoen sistema onartuko dituenik. Zortzi urte luzez bizi izan da Beltza Bruselan eta euskal gizarteak Europa askatasunaren ispilu ikusten badu ere, berak ondotox daki Mendebaldeko estatu europarren politika zein den: Hirugarren Munduarekiko esplotazioa, etorkinekiko mespretxua, kontrol soziala, diktadoreei armak saltzea eta abar. Horretan oinarrituz *Euskadi 1984* liburua idatzi zuen eta bertan hainbat iragarpen egin ere. Denborak arrazoa emango dio maiz, ez beti. Ez da erraza terrorismoa eta zilegi den borroka armatua bereizten dituen marra adieraztea. Beltzak esango du iraultzak berak etenik gabeko gogoeta etikoa eta estrategikoa eskatzen duela. Tradizio iraultzaileak onartzen du biolentzia baina ez edonolakoa. Proporzionala izan behar du eta, halaber, herriaren zati handi baten babesa izan.

Hirugarren atalean, Beltzak hainbat alorren gainean idatzitakoak biltzen dira. Aski gai interesgarriak jorratzen ditu, artean Ezker Abertzalearen negoziaketa-estrategiaren errepaso egiten du. Hala ere, zeharka bada ere, gai horri erreferentzia egin diodanez, beste alor bitan jarriko dut arreta: Beltzak Ipar Euskal Herriaz egiten duen gogoeta eta intelektualen lanari buruzko hausnarketa, artean berarentzat erreferente izan diren batzuk aipatuko ditu.

Beltza 1976tik aitzina Ipar Euskal Herrian bizi da eta hango berri izateaz landa, bertako historian sakondu du. 1789an Iraultza eman bazen ere, burgesen iraultza bilakatu zena, XX. mendeko 60ak arte panorama egonkorra bizi du Iparraldeak. Bertan jaun eta jabe dira bertako nekazari-jauntxoak. Horiek nekazari, abeltzain eta orobat herritar xumeekin bezero-harremanak dauzkate eta Frantziako botere faktikoekin bitartekari-lanak egiten dituzte. Herriaren adostasuna eta bakea bermatzeko eliza katolikoa eta apaizen predikuak erabiliko dituzte. Harreman guztia euskaraz izango da, hura baita herri xeheak menderatzen duen hizkuntza bakarra. Kostaldea da, turismoaren eraginez, errealtate horretatik poxi bat aldentzen dena. Baina, 60etan industriaren eragina iristen da, turismoa hedatzen da, frantsesezko hedabideak herri guztietara iristen dira, hezkuntza orokortzen da, harremanen eremua zabaltzen da eta ondorioz ordura arte indarrean izan den gizarte tradizionalaren gainbehera dator. Horren ondorioz, frantsesa gero eta usuago erabiltzen da eta euskararen hizkuntza-transmisioa eteten da. Tragedia bat Beltzaren hitzetan, nahiz XXI. mendearen hasieran baikortasun pittin batekin mintzo zaigun. Kontzientzia abertzalea modu

esanguratsu baten handituz zihoan —bera Abertzaleen Batasuneko kidea izango da—, autoerakundetzearen gaia mahai gainean zegoen eta gazte-sektore ohargarri bat buru-belarri zebilen euskara biziberritzeko sustapen-lanean. Hogei urte pasa dira eta esango nuke Beltza nahiko zuzen zebilela.

Intelektualei dagokienez, Beltzak dio herri xehearekin konprometituak behar direla izan, aparatu politikoekiko askatasuna bilatu eta boterearekiko kritika muturreraino eramango dutenak. Jean Paul Sartre intelektual unibertsalaren eredu bada eta Michel Foucault intelektual espezifikoa, Beltza azken honen alde lerratzen da, gorrotoa baitio edozein gairi buruz iritzia emateko gain den sasijakintsuari. Berak uste dut intelektual batek menderatzen duen jakintza-alorrari buruz jardun behar duela. Azken boladan, intelektualaren sona gutxitu egin dela uste du, besteak beste, ilusio iraultzailearen porrotak, kontserbadurismo berriak, akademizismo berekoiak eta irudiaren eta publizitatearen arrakastak eraginda.

Beltzak gaur egun bi intelektual klase nagusitzen direla dio. Lehenengoei, azalekoak deitzen die eta boterearen interesen arabera, oihartzun handiena duten hedabideetan edozein gairi buruz iritzi irmoak emango dituzte, modu zalapartatsuan eman ere. Bigarrenak, serioagoak, gobernuak eta enpresa handiek sustatutako aditu bereziak izango dira. Hortik kanpo geratuko dira, Lopez Adanek maiteen dituen intelektual kritikoak, sarri zokoratuak eta mespretxatuak. Horiek dira boterearekiko harreman kritikoa izatearen garrantzia azpimarratuko dutenak. Argi dago, kapitalismoaren aurka ganorazko alternatibarik ez den bitartean, intelektualak sistema nola arrakalatu pentsatu behar du. Horretarako, autoritarismoa salatzeaz landa, funtsezkoa da norbanakoek eta elkarte txikiek egiten dituzten autonomia-saiakerak.

Intelektualen artean hainbat erreferente izango ditu Beltzak. Anarkista aitzindarien artean Bakunin eta Kropotkin hartzen ditu erreferentziatzat: «Kropotkinen pentsakera originala da. Lehendabizi, oinarri zientifikoa erantsi nahi dio anarkismoari; bigarrenik, garrantzi handia ematen dio elkar-laguntzari; eta hirugarrena etika eta moralari ematen dien inportantzia nabarmenduko nuke, Estatuaren eta errepresioaren aurka batez ere». Idatzi zituen lerro hauek, nire ustez, Beltzaren pentsaeraren ardatzak dira.

Intelektual euskaldunen artean lehenbizi F. Krutwig aipatuko du. Berarekin harreman sakona izan zuen, Belgikako erbestaldian batik bat. Ideien aldetik gizon ikaragarri oparoa, ekimenerako gaitasun handikoa, hala ere berezi samarra izanik, ez zuen jendea bere inguruan biltzeko xarma handirik.

Bestalde, jada Ipar Euskal Herrian bizi zela, Gerra Zibilearen osteko euskaldun erbesteratuen ibilbidea ikertzen ari zela harreman estua izan zuen Marc Legasse, Felix Likiniano, Manolo Chiapuso eta Kasilda Hernaez-ekin.

Mark Legasse anarkista, idazle gogoangarria eta abertzale fin eta kontsekuentea.

Likiniano, euskaldun naturala, anarkista proletarioa. Espainiako Gerra Zibilean batailoi anarkistetan ibilitakoa eta ondoren nazien aurkako erresistentziako militantea. Beti egon zen ETAko militanteengandik hurbil eta ez zuen sekula bere askatasuna galdu.

Kasilda Hernaez, nortasun handiko emakumea, Gerra Zibilean emazte libreen elkartean aritu zen. Manolo Chiapuso, intelektuala, CNTko militante zaildua eta Eusko Jaurlaritzan ibilia.

Txillardegiren figura ere gorai patzen du. Oroz gainetik abertzalea zen eta arlo sozialean ezker humanista defendatu zuen, ez baitzuen onartzen askatasun politikoak ukatzen dituen sozialismo sobietarra eta, orobat, inongo totalitarismoren arerio izan zen. Esan gabe doa idazle eta hizkuntzalari moduan egindako lanaren garrantzia.

Beltzak Joxe Azurmendi ikaragarri mirestu eta maisu handitzat hartzen badu ere, Miranderen izena berreskuratzeko honek egiten duen saioa deitoratzen du. Beltzak dio Mirandek ideologia erabat nazia eta xenofoboa zeukala, eta ondorioz ez litzaioke, euskaldunen askatasunaren aldeko borrokan, inongo aitortzarik egin behar. Beltzaren ustez, XX. mendeko 90eko hamarkadan, Miranderen izaera faxista bazterrean utzi eta bere ekarpena aintzakotzat hartu nahi izateak oso argi adierazten zuen euskal pentsamendu iraultzailea desorientazio politiko eta etiko nabarian zegoela.

Jon Artza Bikandi

